


**ehbildu**



**Dokumentu mota:** Interpelazioa

**Nori zuzendua:** Hezkuntza Sailburuari

**Izapidetze organoa:** Legebiltzarreko Mahaia

**Proposatzailea:** Rebeka Ubera Aranzeta

**Talde parlamentarioa:** EH Bildu

**Ekimenaren izenburua:** *'Hezkuntza sistemak bizi dituen egoera larriei irtenbidea emateari buruz.'*

## ZIOA

Azken urteetan EAEko hezkuntza sistemak ez du aurrera egin; eten egin da. Hezkuntza Sailak ez du anbizioz jokatu eta ez du euskal hezkuntza sistemak behar duen norabiderik markatu. Ez behintzat inklusioan, ekitatean, aukera berdintasunean, euskalduntzean, autonomian edota lan baldintzetan.

Are gehiago, gure hezkuntza sistema etorkizunera begira kokatu beharrean eta ikasle kritiko, sortzaile eta euskaldun eleanitzak hezi beharrean, bi abiaduratako sisteman sakondu du Hezkuntza Sail honen kudeaketak.

Indikadore ezberdinen emaitzak, lan gatazka etengabeak, eragileen ezinegona edota ikastetxe ezberdinetan identifikatu ditugun kexa ezberdinak agerian uzten ari dira behin eta berriro hezkuntza sistema hau agortua dagoela.

Ikastetxeen autonomia mugatua eta burokraziaren areagotze itogarria, eskola eremuko euskararen erabileraren gainbehera, jatorri ezberdinetako zein maila

sozioekonomiko desberdinetako ikasleen arteko arrakala gero eta nabarmenagoa edota lan gatazkei irtenbidea emateko Jaurlaritzak erakusten duen pasibitatea sintoma batzuk besterik ez dira.

Cristina Uriartek gidatzen duen Hezkuntza Sail honen kudeaketa ezegokiaren ondorioz arrakalak besterik ez ditu sistemak eta azken adierazlea ikastetxe kontzertatu batzuetako gatazka izaten ari da. Berriz ere, Hezkuntza Sailak beste alde batera begiratu eta ez du inongo irtenbiderik proposatu.

Hori dela eta, ondorengo INTERPELAZIOA egiten diogu Hezkuntza Sailburuari:

## INTERPELAZIOA

Zer asmo du Hezkuntza Sailak euskal hezkuntza sistemak bizi dituen egoera larriari irtenbidea ematearen inguruan?

Euskal Herrian, 2019ko otsailaren 18an

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordea

Rebeka Ubera Aranzeta

